# Grupos opositores al TAV denuncian el relanzamiento de la “Y vasca” hasta la muga

AHTREN AURKAKO DONOSTIALDEA, OARSOALDEA ETA BIDASOAKO TALDEAK :: 10/05/2013

Denuncian que el relanzamiento del proyecto de la “Y vasca” hasta la muga duplica los impactos de las nuevas infraestructuras previstas entre Astigarraga e Irun

**[Euskaraz]**

**AHTren aurkako taldeek Astigarraga eta Irun tarteko egitasmoaren bultzada berria salatu eta “Euskal Y”-a mugarekin lotuko duen proiektu berriak eskualdean trenbide azpiegiturak eta kalteak bikoiztu egiten dituela salatu dute:**

Donostialdea, Oarsoaldea eta Bidasoako AHTren aurkako taldeek gogor salatzen dute Espainiako gobernuak azken asteotan Astigarraga-Oiartzun-Lezo zatian eta Iparraldeko mugaraino doan tartean “Euskal Y”-a eraikitzeko egitasmoari bultzada berria eman asmoz udalerri kaltetuetara bidali dituen “hastapeneko” txostenak. Bertan Astigarragatik Biriatuko mugaraino eraikitzeko apustua mantendu eta Donostialdean, Oiartzunen. Lezon eta Irunen trenbide sare berriak eragindako kalteak bizkoiztu egingo litzuzkeen proiektu aldatu bat bultzatzen du. Hori dela eta, datorren maiatzak 14 asteartean Oreretan egingo den batzarran parte hartzeko dei egiten diegu eskualdeko jende eta talde sozial guztiei, arratsaldeko 7’30etan Zintzilik Irratiaren egoitzan (Tomas Perez kalean dago hori), hain zuzen ere proiektu txikitzaile horren aurkako informazioa herritarrengana zabaltzeko eta AHTrekiko oposizioa adierazteko ekimenak antolatzeko helburuarekin.

Lehenik eta behin, AHTren egitasmo berri horrek gure eskualdeko lurraldea zeharo suntsituko lukeela salatu nahi dugu, AHTren makro-azpiegituren sarea bikoiztea dakarrelako berekin Donostialdeatik Iruneraino doan tartean. Izan ere, Espainiako Ingurumen Ministerioak udalerri kaltetuei kontsultak egin asmoz igorri dien AHTren proiektu berriaren arabera, Astigarragatik Behobiaraino 18’400 km-ko luzera duen Abiadura Handiko Trenbide lerroa eraikitzea aurrikusten da, eta horrez gain, AHTren bide berri hori egungo Renfe-ko trenbide konbentzionalarekin lotzeko beste 14’800 km-ko luzera duten hainbat trenbide adar eta interkonexio-gune eraikitzeko asmoa agertzen du –baita Renfeko ohiko trenbidean zabalera iberriarra eta nazioartekoa ezartzeko ere, trenbideetan hirugarren errail bat jarrita—, hain zuzen ere Lezo-Gaintxurizketan merkantzien geltoki intermodal bat eraiki ahal izateko; aldi berean AHTren bidaiarien trenak Donostiako erdialdera sartu eta Frantziarako bidea Irundik igaro gabe egin dezaten ahalbidetu nahi dute lotune horiek. Esan gabe doa paperean egundoko dentsitatea lukeen sare bikoitza marraztu dutela, AHTren ibilbide ezberdinek eskualde osoan eragingo luketen kalteen tamaina bistakoa izanik. Honi dagokionean,

1) Astigarragatik Behobiaraino AHTren ibilbide osoan egin beharreko azpiegitura-lan handien gogorkeria nabarmena da. Besteak beste, proiektuak berak onartzen du “geologian eragingo diren kalteak larriak direla” eta AHTren zati honen hondeatzetik sortuko

liratekeen 3’250 milioi m3 lur soberakinak botatzeko 9 hondakindegi aurrikusten ditu. Hondakindegi horiek interes naturalistikoko zenbait leku kaltetzen dituzte, hala nola Arkiriko Dolina (Errenteria) eta Altziko ingurua (Oiartzun), kasu honetan proiektuak berak inpaktua larria izango dela aitortu eta “landaretza autoktonoaren ugaritasunagatik kokapen desegokia da, baina ez da inguruan beste leku egokiagorik aurkitu”, esaten duenean.

2) Halaber, AHTren eta trenbide konbentzionalaren arteko lotuneak eta interkonexio-guneak eraikitzeko Ergobia-Martutenen, Arragua-Lezo/Gaintxurizetan eta Araso-Altzubiden egin beharreko obren inpaktua gailentzen da, inguru horietan trenbideen eta azpiegituren biderkatzearen ondorioz kalteak areagotzen baitira. Hala, Martuteneko Ibarra 5 trazaketak zeharkatuko lukete, alderik alde eraikitako biadukto eta betelanez bidez 10 hektarea nekazaritzako lur eremua eta zenbait baserri suntsituz; eta era berean, hirukoiztu egiten dira Oilakinetako bailaran (Landetxa) eta Ugaldetxo/Arraguan (Oiartzun) aurrikusitako AHTren biaduktoak eta plataformak.

3) Lezo-Gaintxurizketan egin asmo duten merkantzien geltoki intermodalak balio handiko nekazaritza-lurreko 15 hektarea inguru suntsituko luke, eta proiektuak ohartarazten duenez “etorkizunean Pasaiako Kanpo Portuarekin lotura izan dezan kontuan hartuta aurrikusi da terminal hori, era honetan ingurumen kalte globalak gutxitze aldera”… Oraindik horrelakorik! Proiektuaren erabateko zinismoa salatu behar dago beraz, “soluzio hauekin ingurumen abantail handiak lortzen dira” eta horreloak birritan esaten dituenean. Zinez, egitasmoak “Donostiatik merkantzia trenen zirkulazioa kanporatzeko” helburuarekin irudikatzen duen azpiegitura-dantza ezin hondagarriagoa da, jadanik hainbeste porlan eta garraiobideren zama jasaten duen Gipuzkoako eskualde honetan lurraldearen txikizoa areagotuz.
Bigarrenik, Astigarraga eta Irun artean AHTrentzat aurrikusitako obra hauen kostu ekonomiko itzela salatzen dugu, gutxi gora-behera 800 milioi euro inguruan zenbatu daitekeena. Honi dagokionean, AHTrekin sustatzen den eredu ekonomiko eta sozial desarrollista ez dugu onartzen, eta gobernuek azpiegitura erraldoi eta oso garesti honen eraikuntzan baliabide publikoak xahutzen darraiten bitartean gizarte arloko gastuak etengabe murrizten dituztela salatzen dugu. Prozesu honek ondorio sozial oso larriak ekarri ditu jada, eta are larriagoak izango dira aurrerantzean AHT gelditzen ez badugu, “Euskal Y”-aren obran egin beharreko gastu osoaren %70 oraindik egitea falta zaiela kontuan hartuta.
Bukatzeko, Astigarraga eta Behobia arteko AHTren proiektuaren bultzada berri honek Lapurdiri ere bete-betean eragiten diola salatzen dugu, Iparraldeko herritarrek AHTren bide berriarekiko arbuio zabalaren aurrean entzungor eginez. Proiektuak esaten duenez, zati hori “Astigarragatik Baionako hegoaldera 55 kilometrotan luzatzen den Gasteiz-Dax AHTren Nazioarteko Tartea”ren parte baita. Aipagarria da, halaber, proiektuak baieztatzen duenez, AHTren bide berria eta Renfe-ko trenbide konbentzionala Araso-Altzubiden elkarren artean lotzeko aurrikusten duen adarrari buruz ari dela, “Donostian geldiunea egingo duten abiadura handiko trenek lotune hortaz baliatuko direla Frantziarantz bidea egiteko, Irundik pasa behar izan gabe”. Horrek Irungo Udaletxearen berehalako erantzuna jaso du, udalerrian AHTak eragingo lituzkeen kalte larrien inguruan zuzentasunez egin duen salaketa baino areago, udaletxeak aurrerantzean Irun Abiadura Handiko Trenaran mapan kokatuko denik zalantza duelako. Gure ustez, azken batean, gizarte arloan eta lurralde ikuspegitik erabat diskriminatzailea den garraio sistema baten aurrean gaudela agerian

jartzen du horrek berriro.

**Datozen egunetako deialdiak:**

Horregatik guztiagatik, datorren maiatzak 14 asteartean Oreretan egingo den batzarran parte hartzeko dei egiten diegu eskualdeko jende eta talde sozial guztiei, arratsaldeko 7’30etan Zintzilik Irratiaren egoitzan (Tomas Perez kalean dago hori), hain zuzen ere proiektu txikitzaile horren aurkako informazioa herritarrengana zabaltzeko eta AHTrekiko oposizioa adierazteko ekimenak antolatzeko. Eta horrekin batera, datozen egunetan Donostialdean AHTren aurka egingo diren deialdi eta ekintzen berri ematen dugu:

Maiatzak 14 Asteartea: Donostialdea, Oarsoladea y Bidasoako AHTren aurkako taldeen batzar-deialdia, a las 19’30h en los locales de Zintzilik Irratia de Errenteria (K/Tomas Lopez)

Maiatzak 26 Igandea: AHTren aurkako borrokaren aldeko Herri-Bazkaria eta Igande-Pasa, “Kanthoria” eta “Mugaldekoak” musika taldeen kontzertuarekin, Donostiako Kortxoenea Gatzetxean (Gros-Ulia auzoa, Indianoenea kalea 16)

Ekainak 16 Igandea: AHTren aurkako mendi martxa Urumeako inguru kaltetuetara (3 ordu oinez). Irteera goizeko 9’30etan Ergobiako plazatik eta amaiera Loiolan.

Halaber, datozen egunetan egingo diren honako hitzaldi hauen berri ematen dugu, Donostiako AHTren aurkako antolaturik:

Maiatzak 16 Osteguna: “Desobedientzia zibila y eta ordenamendu juridikoa”, herri mugimenduen defentsan aritzen den Fidel Sanchez abogatuaren eskutik. Arratsaldeko 7etan Kortxoenea Gaztetxean.

Maiatzak 21 Asteartea: “Sare sozialen sukarra eta kontsumo gizartea”, “Txopi” hacktibistaren eskutik. Arratsaldeko 7etan Kortxoenea Gaztetxean.

Zuen parte hartzea espero dugu beraz, baita zuek informatu eta animatuko dituzuen lagunena ere.

*AHTren aurkako Donostialdea, Oarsoaldea eta Bidasoako taldeak*

---

**[Castellano]**

**Grupos opositores al TAV denuncian que el relanzamiento del proyecto de la “Y vasca” hasta la muga duplica los impactos de las nuevas infraestructuras previstas entre Astigarraga e Irun:**

Los grupos contra el TAV de Donostialdea, Oarsoaldea y Bidasoa denuncian que el Gobierno español ha enviado en las últimas semanas a los ayuntamientos afectados los “documentos iniciales” de un proyecto modificado de TAV correspondiente a los tramos Astigarraga-Oiartzun-Lezo y a la conexión con Iparralde que mantiene la apuesta por la construcción de

la línea de Alta Velocidad hasta la muga de Biriatu y duplica además los impactos de la nueva red de infraestructuras en Donostialdea, Oiartzun, Lezo e Irun. Por ello, llamamos a todas las personas y colectivos sociales de la comarca a participar en la asamblea que tendrá lugar el martes 14 de mayo a las 19’30h en los locales de la Zintzilik Irratia de Errenteria-Orereta (K/ Tomas Lopez) con el fin de impulsar actividades informativas y de oposición a este destructivo proyecto.

En primer lugar, queremos denunciar la destrucción del territorio que conlleva la construcción de esta macro-infraestructura, puesto que el nuevo proyecto del TAV trasladado a los ayuntamientos por el Ministerio de Medio Ambiente para iniciar consultas acerca de su impacto ambiental duplica las nuevas infraestructuras previstas en la comarca: en efecto, junto con la construcción de aproximadamente 18’400 km de trazado de Alta Velocidad entre Astigarraga y Behobia, el proyecto contempla además la ejecución de otros 14’800 km de nuevos ramales e interconexiones del TAV con el ferrocarril convencional de Renfe -- que sería a su vez adaptado al ancho europeo con la instalación de un tercer carril, implantando el ancho mixto Ibérico e internacional-- para posibilitar la construcción de una estación intermodal de mercancías en Lezo-Gaintxurizketa y permitir el paso de los TAV de viajeros por el centro de Donostia así como su continuación hacía el estado francés sin pasar por Irún. El papel lo aguanta todo…, pero se configura así una doble red que ocasionaría graves impactos en toda la geografía. A este respecto:

1) Resalta la dureza de las obras proyectadas en todo el trazado del TAV desde Astigarraga hasta Behobia. El propio proyecto admite por ejemplo que “el impacto sobre la geología se considera severo” y propone la creación de 9 vertederos para el depósito de los 3’250 millones de m3 de materiales sobrantes de la excavación de este tramo, afectando en algunos casos a lugares de interés naturalísticos como la Dolina de Arkiri (Errenteria) y el entorno de Altzi (Oiartzun), aún cuando el proyecto reconoce en este caso su elevado impacto ambiental al advertir que “no es un buen emplazamiento por la presencia de abundante vegetación autóctona, pero no los hay mejores en las cercanías”.

2) Es preciso destacar igualmente el fuerte impacto de las interconexiones entre las redes del TAV y del ferrocarril convencional previstas en Ergobia-Martutene, Arragua-Lezo/Gaintxurizeta y Araso-Altzubide, donde se multiplican las líneas y los ramales de la infraestructura. Así, sobre la Vega de Martutene se ciernen hasta 5 trazados de viaductos y terraplenes laterales que destruyen alrededor de 10 Hectáreas de tierras agrarias y varios caseríos, a la vez que sobresale igualmente la triplicación de los viaductos y plataformas proyectadas en el paso del TAV por la vaguada de Oilakineta (Ventas de Irun) y por Ugaldetxo/Arragua (Oiartzun).

3) La estación intermodal de mercancías proyectada en Lezo-Gaintxurizketa destruiría por sí sola alrededor de 15 Ha tierras agrarias de gran valor, y el proyecto advierte además que “dicha terminal también se ha previsto teniendo en cuenta que desde ésta se puede proporcionar acceso ferroviario al futuro Puerto Exterior de Pasajes, por lo que se minimizarán las afecciones ambientales globales”… Respecto a lo cual, es preciso denunciar el enorme cinismo del proyecto al afirmar repetidamente que “con estas soluciones se logran importantes ventajas ambientales”. Antes bien, debe estimarse que el baile de infraestructuras que el proyecto parece estar creando con el fin de “eliminar de la

circulación de trenes de mercancías por Donostia” supone agravar el deterioro del territorio en este entorno de Gipuzkoa ya muy castigado por tantas vías de transporte y tanto hormigón.

En segundo lugar, denunciamos el inmenso coste económico de alrededor de 800 millones de euros en que puede estimarse el coste de las obras proyectadas para el TAV entre Astigarraga e Irún. A este respecto, manifestamos nuestra oposición al modelo económico y social desarrollista que se promueve con el TAV y denunciamos que los gobiernos siguen despilfarrando los recursos públicos en la construcción de esta gigantesca y costosísima infraestructura, mientras que imponen duros recortes a los gastos de carácter social. Estos procesos están teniendo ya consecuencia sociales muy graves, que lo serán aún más si cabe si no paramos el TAV, habida cuenta de que todavía les falta más del 70% del gasto total de la “Y vasca” por realizar.

Por último, denunciamos que el relanzamiento del proyecto del TAV entre Astigarraga y Behobia afecta también a Lapurdi, ignorando la amplia oposición de la población de Iparralde a la nueva infraestructura, dado que el proyecto señala que este tramo forma parte de la “Sección Internacional del TAV Vitoria-Dax que se extiende sobre un poco más de 55 km entre Astigarraga y la parte sur de Baiona”. En este sentido, también afirma que los ramales de conexión entre el TAV y el ferrocarril convencional proyectados en Araso-Altzubide “permitirán dar continuidad a los trenes de alta velocidad que hagan parada en San Sebastian hasta Francia, sin necesidad de pasar por Irun”. Lo cual ha suscitado por otra parte la reacción del ayuntamiento de Irun, que además de los graves impactos del TAV que ha denunciado justamente en el municipio, ahora ve peligrar la pretensión de incorporarse al mapa de la Alta Velocidad como consecuencia de un sistema de transporte fuertemente discriminatorio desde el punto de vista social y territorial.

**Convocatorias en las próximas fechas:**

Por todo ello, hacemos un llamamiento a todas las personas y colectivos sociales a participar en la asamblea que tendrá lugar el martes 14 de mayo a las 19’30h en los locales de Zintzilik Irratia de Errenteria-Orereta (K/ Tomas Lopez) con el fin de impulsar actividades de oposición a este destructivo proyecto. A la vez que anunciamos la siguientes convocatorias e iniciativas contra el TAV programadas para las próximas fechas en Donostialdea:

Martes 14 de mayo: Convocatoria de asamblea de los grupos contra el TAV de Donostialdea, Oarsoaldea y Bidasoa, a las 19’30h en los locales de Zintzilik Irratia de Errenteria (K/Tomas Lopez)

Domingo 26 de mayo: Comida popular e Igande-Pasa en apoyo a la lucha contra el TAV, con conciertos de los grupos musicales “Khantoria” y “Mugaldekoak”, en el Gaztetxe Kortxoenea del Bº Gros-Ulia de Donostia (K/ Indianoenea 16)-

Domingo 16 de Junio: Marcha montañera contra el TAV a las zonas afectadas del Valle del Urumea (3 horas andando). Salida a las 9’30h desde la plaza de Ergobia y final en Loiola.

Asimismo, informamos que el grupo contra el TAV de Donostia ha organizado las siguientes

charlas en los próximos días:

Jueves 16 de mayo: Charla sobre “Desobediencia civil y ordenamiento jurídico”, a cargo de Fidel Sanchez, abogado especializado en la defensa de movimientos sociales. A las 19h en el Gaztetxe Kortxoenea.

Martes 21 de mayo: Charla sobre “La fiebre de las redes sociales y la sociedad de consumo”, a cargo del hacktibista “Txopi”, a las 19h en el Gaztetxe Kortxoenea.

Esperamos por tanto vuestra participación y os pedimos difundir este llamamiento en vuestro entorno.

*Grupos contra el TAV de Donostialdea, Oarsoaldea y Bidasoa*

---

*https://eh.lahaine.org/grupos-opositores-al-tav-denuncian-el-re*